

En la Casa Consistorial del M I Ayuntamiento de Auritz-Burguete siendo las 20,00 horas del día 20 de agosto de 2013, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres. Concejales, Doña María Roncesvalles Azanza Burusco, Dña M^a Aranzazu Oyarbide Lapazarán, D. Alejandro Otegui Echeverria, excusando su asistencia los concejales D. Juan Manuel Azanza Burusco, D. Luis De Potestad Tellechea y D. Jesús Martínez Rico, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

UNICO.- TRIBUNAL ADMINISTRATIVO DE NAVARRA. RECURSO 13/03152, INTERPUESTO POR D. MANUEL MARIA ETULAIN URRUTIA CONTRA ACUERDO DEL AYUNTAMIENTO DE FECHA 9 DE MAYO DE 2013. APROBACION INFORME Y REMISIÓN DE EXPEDIENTE

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que en relación con el recurso de alzada interpuesto por D. Manuel María Etulain Urrutia contra acuerdo del Ayuntamiento de fecha 9 de mayo de 2013 por el que se desestima el recurso de reposición interpuesto por el Sr. Etulain sobre reconocimiento de propiedad, propone aprobar y trasladar al Tribunal Administrativo de Navarra el informe que se transcribe a continuación así como el expediente que compone el mismo:

INFORME

1.-Como es sobradamente conocido, los recursos administrativos y contencioso-administrativos se interponen frente a actos, resoluciones, o disposiciones de carácter general emanadas de la administración pública y sujetas al derecho administrativo. Recursos que deben fundarse en cualquier infracción del ordenamiento jurídico administrativo incluso la desviación de poder.

La competencia tanto de la administración como de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa se limita a la revisión de las actuaciones administrativas so-metidas al Derecho Administrativo, estando vedada su intervención cuando se plantean cuestiones civiles, mercantiles, laborales, o penales.

Pues bien, si analizamos tanto en recuso de alzada como las actuaciones anteriores del recurrente, es claro que nos encontramos ante una cuestión civil, que no puede ser resuelta, ni siquiera con carácter prejudicial, por ese Tribunal Administrativo.

En efecto, la reclamación inicial del recurrente, su posterior recurso de re-posición frente a la decisión desestimatoria y el presente recurso de

alzada interpuesto contra la desestimación del recurso de reposición, tienen como único objeto, finalidad y pretensión, que se declare la propiedad del recurrente respecto de un bien inmueble que consta como de titularidad del Ayuntamiento de Auritz/Burguete, no solo en el catastro actual y anteriores, sino también en el Registro de la Propiedad, en este último, desde el año 2000.

En consecuencia, pretendiéndose una declaración de propiedad, es claro que el recurso debe ser inadmitido, debiendo remitirse al recurrente a la vía civil para que, en su caso, ejercite la correspondiente acción reivindicatoria frente al Ayuntamiento.

II.-Al margen de lo anterior, y en defensa de la adecuación a derecho de los acuerdos municipales recurridos, en los que se rechaza el derecho de propiedad del recurrente sobre la parcela municipal debemos señalar lo siguiente:

a) El recurrente funda su supuesto derecho de propiedad en una fotocopia incompleta de unas capitulaciones matrimoniales de 1811, en las que la casa de Loigorri afrontaba por detrás con "huerta propia", cuando es notorio que dicha casa lindaba con paso público entre la casa y la huerta. Paso que quedo en desuso y fue vendido en 1967 al recurrente para la construcción de la actual borda.

b) La huerta siempre ha constado como de titularidad municipal tanto en los antiguos catastros como en el vigente, habiendo abonado el recurrente el canon correspondiente por su uso y aprovechamiento, desde siempre.

c) Ante la constancia de algunos casos de doble inmatriculación de fincas, en abril de 1990 y junio de 1993, el Ayuntamiento requirió a diversos vecinos, entre ellos al recurrente, que aportaran documentación acreditativa de la supuesta propiedad de las parcelas municipales, advirtiéndole que en caso contrario se ratificaría el carácter público de las mismas. El recurrente nada aportó al efecto. Por el contrario siguió abonando el canon por el uso y aprovechamiento de la huerta.

d) Con fecha 1 de marzo de 1999 el recurrente solicitó permiso para reparar el muro de la huerta número 3 que, "venimos disfrutando", concediéndose la autorización el 5 de marzo de 2000, sin giro de ICIO, dado el carácter público de la parcela.

En consecuencia, acreditada la constancia de titularidad pública, tanto en el catastro antiguo y vigente, como en el Registro de la Propiedad y

además la concurrencia de múltiples actos propios del recurrente que avalan la titularidad pública de la parcela, la actuación municipal denegando la declaración de propiedad en favor del recurrente no puede ser más ajustada a la legalidad, ni a la obligación de los entes locales de defender, proteger, y recuperar en su caso, los bienes públicos.

Frente a los títulos indicados y actos propios de ambas partes, el Ayuntamiento de Auritz-Burguete sin que previamente lo declare la Jurisdicción Civil (cosa harta improbable) es obvio que no puede reconocer la propiedad privada de la parcela en cuestión.

III.-Por último, no podemos ni debemos consentir la absurda acusación de trato discriminatorio respecto de otros propietarios en idénticas situaciones, por la sencilla razón de que no concurre tal idéntica situación. Cada caso es analizado por el Ayuntamiento con objetividad y transparencia y solamente en los casos en que resulta indubitada la propiedad privada esta se reconoce, en caso contrario, o de duda razonable, se deniega el reconocimiento y se remite a la Jurisdicción Civil.

En concreto, en los casos de Eskarramanena y Andresena, se reconoce la propiedad privada en ambos casos, porque se acredita de forma palmaria la titularidad privada, lo que no ocurre en nuestro caso.

En el supuesto de Eskarramanena por ejecución de acuerdos municipales de permuta y titularidad, tomados en 1977 y 1978 respectivamente, y en el caso de Andresena por constatación registral desde el año 1865.

Por tanto, los casos no son iguales, ni existe una identidad objetiva y razonable, ni por tanto existe agravio comparativo alguno, por lo que debe procederse a la inadmisión o desestimación íntegra del recurso al estar los acuerdos recurridos íntegramente ajustados a derecho.

Por lo expuesto,

SUPLICO al Tribunal, que habiendo por recibido este escrito, se sirva admitirlo, tenga por formulado informe municipal en el recurso de alzada nº 13-03152 y dando al mismo el trámite legal que proceda, en su virtud, dicte en su día resolución por la que, se inadmita el recurso, o subsidiariamente, se desestime íntegramente, por estar ajustados a derechos los acuerdos municipales recurridos.

Se acuerda por unanimidad, aprobar el informe propuesto por el alcalde Sr. Irigaray remitiéndolo en su integridad al Tribunal Administrativo de Navarra, así como copia del expediente existente debidamente diligenciado, no procediendo emplazamiento alguno al no haber personas o entidades salvo el propio Ayuntamiento cuyos derechos o intereses puedan verse afectados.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 20,30 h. del mismo día se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2013ko abuztuaren 20ko 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: M^a Roncesvalles Azanza Burusco, M^a Aranzazu Oyarbide Lapazarán, eta Alejandro Otegi Echeverría. Juan Manuel Azanza Burusco, Luis De Potestad Tellechea eta Jesus Martinez Rico zinegotziek etortzerik ez dutela jakinarazi dute, alkatea, Jose Irigaray Gil, bilkuraburu izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

BAKARRA- NAFARROAKO ADMINISTRAZIO AUZITEGIA. 2013ko MAIATZAREN 9an UDALAK HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA MANUEL ETULAIN URRUTIA JK. JARRITAKO 13/03152 ERREKURTSOA. TXOSTENAREN ONESPENA ETA ESPEDIENTEAREN IGORPENA.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta aipatu du 2013ko maiatzaren 9an Udalak hartutako erabakiaren aurka Manuel Maria Etulain Urrutia jk. gora jotzeko errekurtsoa jarri zuela, erabaki hartan ez baizen onartu Etulain jk. bere jabetza aitortzeko jarritako berraztertze errekurtsoa; alkateak proposatu du ondoren transkribatzen den txostena eta hura osatzen duen espedientea onartzea eta Nafarroako Administrazio Auzitegira igortzea.

TXOSTENA

I.- Ezaguna denez, administrazio errekurtsuak eta administrazioarekiko auzi-errekurtsuak administrazio publikoak izaera orokorrez sortzen dituen egintza, ebazpen edo xedapenen aurka jarri ohi dira, beti ere zuzenbide administratiboari lotuta baldin badaude. Errekurtsu horiek arautegi juridiko-administratiboaren edozein arau-haustean oinarritu behar dira, agintea desbideratzea barne.

Administrazioaren zein Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren eskumena da Zuzenbide Administratiboaren menpeko jarduketak berrikustea, eta ez du inolako eskumenik arlo zibil, merkataritza, lana edo penalarekin zerikusia duten aferekin.

Gora jotzeko errekurtsua eta errekurtsua jarri duenak egindakoa aztertuta, argi dago aferaren izaera zibila dela, eta Administrazio Auzitegiak ezin dela ebatzi, ezta aurretiko auzi izaeraz ere.

Errekurtsogileak hasiera batean jarri zuen erreklamazioa, hura onetsi ez zenez jarri zuen berraztertzeko errekurtsua, eta haren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsuaren helburu eta uzia da errekurtsogileari aitortzea ondasun higiezin baten jabetza, Aurizko Udalaren izenean dagoena, ez bakarrik oraingo eta aurreko katastroetan, baizik eta Jabetza Erregistroan ere, 2000. urtetik hona.

Beraz, jabetzaren aitortza lortu nahi denez, argi dago ezin dela errekurtsua onartu, eta errekurtsogileari bide zibila erabiltzea esango zaio, egokia baderitzo Udalaren aurrean eskaera egin dezan.

II.- Aurrekoaz aparte eta errekurritu diren udalaren erabakiak egokiak direla defendatzeko, horietan errekurtsogileak udalaren lursail horrekiko jabetza eskubiderik ez duela esaten baita, honakoa aipatu behar da:

a) Errekurtsogileak bere jabetza 1811ko ezkontzako itunen fotokopia batean oinarritzen du, horietan aipatzen da Loigorrirenak bazuela atzeko aldean "bere baratza", eta argi dagoena da etxe horren eta baratzaren artean bide publikoa zegoela. Bide hori erabiltzeari utzi zitzaiola eta 1967an saldu zitzaion errekurtsogileari orain duen borda egiteko.

b) Baratzaren jabetza beti udalarena dela aipatzen da bai antzinako katastroetan zein katastro berrian, eta errekurtsogileak baratza erabiltzeko kanona betidanik ordaindu du.

c) Ikusirik zenbait lursail bitan eskrituratu zirela, 1990eko apirilean eta 1993ko ekainean, Udalak eskatu zien hainbat bizilagunei, horien artean errekurtsogilea, udal lursailen gaineko balizko jabetza kreditatzen duen dokumentazioa aurkeztea eta, hori egin ezean, haien jabetza publikoa berretsiko litzateke. Errekurtsogileak ez zuen ezer aurkeztu. Aldiz, baratza erabiltzeko kanona ordaintzen jarraitu zuen.

d) 1999ko martxoaren 1ean errekurtsogileak baimena eskatu zuen 3 zenbakia duen baratzaren pareta konpontzeko eta 2000ko martxoaren 5ean eman zitzaion EOGZ kobratu gabe, lursaila publikoa zelako.

Beraz, titulartasuna publikoa denez, bai katastro zaharreen zein indarrean dagoenean, baita Jabetza Erregistroan ere, eta errekurtsogileak egindako guztiak lursailaren jabetza publikoa dela

frogatzen dutenez, udalak errekurtsogilearen jabetza ez onartzea erabat legezkoa da, toki entitateek ondasun publikoak defendatu babestu eta, hala badagokio, berreskuratzeko eginbeharra dutelako.

Aipatutako titulu eta egintzen aurrean, Aurizko udalak ezin du lursailaren jabetza pribatua aitortu, ez bada Jurisdikzio Zibilak aldez aurretik onartu duelako (baina hori oso zaila da).

III.- Azkenik, ezin dugu onartu egoera berdinean dauden beste jabe batzuekiko tratu bereizgarria eman dugula dioen akusazioa, ez baita egoera berdina eman. Udalak kasu bakoitza aztertzen du objetibotasunez eta gardentasunez, eta inolako zalantzarik ez dagoen kasuetan bakarrik onartu da jabetza pribatua, eta kontrako kasuetan ez da hori aitortzen eta Jurisdikzio Zibilera igortzen da.

Hain zuzen ere, Eskarramanena eta Andresenaren kasuetan, bietan, jabetza pribatua onartu egin da, titulartasuna argi eta garbi frogatu baita, baina hori ez da kasu honetan gertatzen.

Eskarramanenaren kasuan Udalak aldatzeko eta Titulartasuna onartzeko hartu zituen erabakiak gauzatu zirelako, 1977an eta 1978an, eta Andresenaren kasuan erregistratuta zegoelako 1865etik.

Hortaz, kasuak ez dira berdinak, eta ez da neurri bakar batekin neurtu, beraz, ezin da errekurtsua onartu.

Hortaz,

ESKATZEN DIOT Auzitegiari, idazki hau jaso ondoren, onar dezala, 13-03152 zkia. duen gora jotzeko errekurtsuari egindako udal txostena onar dezala, eta hari legezko tramitea eman diezaiola, eta hori guztia kontuan hartuta, ebazpena eman dezala errekurtsua atzera botaz, edo bestela bere osotasunean atzera bota dezala, errekurritu diren udalak hartutako erabakiak guztiz legezkoak direlako.

Aho batez erabaki da alkateak, Irigaray jk., proposatu duen txostena onartzea, Nafarroako Auzitegi Administratibora igortzea baita behar bezala bideratu den espedientearen kopia ere, eta dela zertan deirik egin behar ukitua den bakarra Udala baita.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 20:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.